SANTA KLARA KALEA

B4

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa): Klara de Asis Asis uriko (Umbria, Italia) familia noble bateko alaba zan. 18 urte ebazala, San Frantzisko de Asisen eskutik hartu ebazan monja abituak. 1215ean "Damas Pobres o Clarisas" komunidadea sortu eban, gizonezkoena baino ez zan fraile frantziskotarren parekoa. Asis izan eban bizitoki 1253an hil zan arte. 1257an done egin eben eta bere eguna abuztuaren 11n da.

Kale honek "Sabino Arana" izena euki eban errepublika sasoian.

Muga geografikoak

Mendebaldean Europako Herrien parkea dauka ondoan. Ekialderantza Karmelo Etxegarai eta Angel Allendesalazar kaleak.

Edifizio aitagarriak

Antiguako ospitalea: Gonzalo Morok sortu eban XV. mendean. XVII. mendean frantziskotarrei emon eutsen eta, harrezkero, bi mendetan ospitalea izan zana, Santa Klara komentuko Bikarioaren etxe bihurtu zan.

Santa Klara komentua: 1619an klausura komentu bihurtu bazan be, badakigu 1422tik bertan monjategi bat egoala. Kalearen izen bereko monja komunidadea bizi da bertan.

Lumoko Udaletxe zaharra: XIX. mendean eregia, lumotarren udaletxea izan zan Gernikak eta Lumok bat egin eben arte. Ordutik hona, lehenengo ume eskola eta gero Bizkaiko Jaurerriko Artxiboa izan da. Gaur egun, Genealogia eta Heraldika agiriak baino ez dagoz bertan.

B2

C2

TXAPORTA AUZOA

Izenaren jatorria:

Izenaren etimologia: toponimoa

Denboraren poderioz izandako aldaketakaz gelditu jakun leku-izena dogu eta hor dirau bizirik.

Orain dala hiru mende dokumentuetan "chanporta" moduko izenak agertu arren, Euskaltzaindiaren gomendioa da ahozko erabilerari jarraitzea. Hagaitik, "txaporta" da toponimo honen modu normalizatua.

Izen honen esangureari jagokonean, hauxe da aurkitu dogun zentzuzko azalpena: "txanpar-lora" (kardo-lorea edo erderazko cardo de los campos) eta "txaporta"-k, "txanporta"-tik letorkenak, txanpar lekua adierazoko leuke.

Muga geografikoak

Iparraldetik "Goikoibarra kaleak" mugatzen dau, ekialdetik bariante barriak eta gainerakoan Arana auzoak inguratzen dau.

Ezaugarri historikoak

Hona hemen izen honek historian zehar izan dauan bilakaera:

- Champorta (1704, 1798)
- Chanporta (1704, 1796)
-.Chaporta (1796, 1798, 1704)
-.Chaporta erdicoa (1796)
-.Chaporta (1799)
-.Chaportachu (1796)
-.Txaporta (Bizkaiko kale izendegia)

TXORRABURU KALEA

A5

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (toponimia): Antxinako baserri-ortuaren izena. Gaur egun San Fidel Ikastola bertan dago.

Muga geografikoak

Mendebaldetik Iñigo Lopez de Haro kaleagaz egiten dau topo eta ekialdetik Carlos Gangoiti kalean amaitzen da.

Ezaugarri historikoak

Ramón de Goiria y Basterretxea Montevideon (Uruguaiko uriburua) bizi izan zan abade. Horrek, 1904ko bagilaren 8an, Karidadeko Ahizta Karmeldarren Institutuari Txorraburun egoan ortu-etxe baten dohaintzaren eskritura egin eutson. "Chorraburu-ondo" deitutako beste orube bat erosi eben eta bietan egin zan karmeldarren ikastetxe barria, gaur egun San Fidel Ikastola dana.

B3

UBITARTE KALEA

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (toponimikoa):

Kale honen inguruan (leku zehatzik ez dogu) izen bereko baserri bat egoan eta handik hartu dau kaleak izena. Orain lur azpitik doazen erreka biren bitartean egoan baserria eta horrexegaitik hartu ei eban izen hori. ("ur-bitarte"tik "ubitarte" gelditu da).

Muga geografikoak

Mendebaldean Juan Calzada eta ekialdean Iparragirre.

Ezaugarri historikoak

Guardia Zibilek kale horretan izan eben euren kuartela, gaur egun Kortezubirako bidean daukiena egin aurretik. Kuartel zahar horri "barrio chino" deitzen jakon.

UHARTE KALEA

B5

Izenaren jatorria

Errenteriako zubiaren iparraldean, ibaiko urak inguratzen eban lurrak hartzen eban izen hori.

Muga geografikoak

Hegoaldetik Zubialde kalea eta zubia. Iparraldetik Mertzede kalea.

Ezaugarri historikoak

Gaur egun kale hau ibaiaren albotik doa. Baina ibaiak, kanalizatua izan aurretik, meandroak egiten zituan eta horreek batzuetan uharte bihurtzen ziran. Halan, gaur eguneko 1 eta 9 zenbakien arteko eremua garai baten "Mertzedeko uhartea" lez ezagutzen zan, ibaiko urek guztiz inguratzen eben-eta.

Kale horren ipar muturrean "Portuzarra" deituriko Ajangizko portua egon zan. Merkantzia ugari sartzen ziran eta urteten eben bertotik: ardaoa, gatza, egurra, arraina, etab. Baina batez be burdina sartzen zan: Somorrostro aldeko meategietatik itsasontziz Bermeora eta Bermeotik honaino ekarri eta bertotik inguruetako burdinoletara banantzen zan.

Izatez, portu hau ez zan kai txiki bat baino askozaz handiagoa izango: jeneroa kargetako eta deskargetako zabalgune bat eukan eta heltzen ziran ontzi txikientzako arlanpa bat edo gehiago.

Ontzi txiki horreek Bermeoraino joaten ziran hango itsasontzi handiagoetan kargetan edo deskargetan eurek ibaian gora eta behera eroaten ebena.

Ajangizko portu horretara heltzen zan guztiak Errenteriatik pasau behar eban. Hor merkantziak pisau eta zergak ordaintzen ziran. Errenteriaren zeregina ibaian gora ekarten zan jenero guztia kontroletea zan. Han egoan udal-pisua eta almazen aproposak eukazan burdina pisau eta inguruetako burdinoletara banandu aurretik gordeteko.

Portu hori XIX. mendearen erdi aldera arte erabili izan zan, ibaia basaz beteten hasi eta ontziak sakonera nahiko barik gelditu ziran arte. Portua desagertu eta gero be, Errenteriak bere zeregina beteten jarraitu eban XIX. mendearen azkenera arte.

A5

URKIETA KALEA

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (toponimia):

Urkien moltsoa adierazoten dau.

Muga geografikoak

Kale nahiko laburra eta barria da. Carlos Gangoiti kaleak zatitzen dau. Mendebaldetik Iñigo Lopez de Haro kaleagaz egiten dau topo eta ekialdetik San Juan Ibarragaz.

URRENGOERROTA KALEA

C5



Izenaren jatorria

Hur dagoan errota. Antxina inguruan egoan errota bati zor deutso kaleak izena.

Muga geografikoak

Mendebaldetik San Bartolome kaleak eta ekialdetik Errekazarra kaleak mugatzen dabe.

Ezaugarri historikoak

Errota hori gitxienez 1592tik egon da martxan. Orduko agiri batzuetan errotearen zortziren bat saltzen zala aitatzen da. Beranduagoko agiri batzuetan "Renteria" eta "Madallerengo" izenakaz agertzen jaku errota hori.

Bada beste erreferentzia bat be 1600. urteko idazki baten, Ajangizko auzokide baten urtegia aztertzeko arotz-maisu bik eginiko ikusketa bat zala-eta. Urtegi hori Juan Ortiz ajangiztarrak eregi eban "Jagoa" ibaian, eta halan dino: "que viene a un molino que está junto al dicho puerto, que se llama Urrengoerrota".

XX. mendeko dokumentuei esker, eukan erabileraren gaineko gauzatxu batzuk dakiguz. Esate baterako, badakigu bertan artoa eta garia ehoten ebezala urte barruan eta egun osoan (24 orduak) egoala zabalik. Orduko anega bi ehoteko gauza zala be badakigu. Ajangizko errotarik errentagarriena zan eta errentagarriena zalako edo, erabilera-tasa altuenak eukazana zan. Pribatua zan eta jaubeek sarritan alokatzen eben.

Edifizio aitagarriak

Galdutako Urrengoerrota edifizioa bera.

A2

A3

ZALLO AUZOA

Izenaren jatorria

Zallo auzoak izen bereko baserriari zor deutso izena. Errigoitirako bidean dagoan baserri hori XVI. mendetik daukagu erregistrauta fogerazinoetan, eta inguruko zaharrenetarikoa dogu.

Auzo horretan sartzen dira Mikiene errekastoaren inguruko baserriak: Arribaltzagakoak, Bidagurenekoak eta Abaliz eta Madura ingurukoak.

Ezaugarri historikoak

Bitxikeria moduan esan beharra dago oraintsu arte Santa Luzia auzoko San Lorentzo jaiak "Sallobante" jaiak deitzen zirala. Datu xume horrek erakusten deusku auzo horren garrantzia eta fama.

ZEARRETA KALEA

A3

A4

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (toponimoa):

Inguru horretan Zearreta torretxea (Zigerta) egoan.

Muga geografikoak

Hegoaldetik Fray Martín de Murua kaleak mugatzen dau eta iparraldetik Allendesalazar etorbideak.

Ezaugarri historikoak

Erret Bidea edo Zin Bidea, kale honen hasierako zatia, Fray Martin de Muruatik hasita, Europako Herrien parkeko hegoaldetik pasauko zan gero, Antiguako Andra Maria eleizaraino.

Edifizio aitagarriak

Europako Herrien parkea 1987an inaugurau eben. Euskadi Atlantikoaren lau ekosistemak biltzen dauz: pagadia, harestia, artadia eta ibai ertzeko landaretza. Txillida (Gure Aitaren Etxea. 1988) eta Mooren (Large Figure in a Shelter-Irudi Handia Aterpe Baten.1986) eskulturak eta Humboldten bustoa dagoz bertan.

"Allendesalazar" eskola publikoa. Lehen Hezkuntzako egoera eskasa ikusita, orduko Gobernuak "Plan de urgencias para las Provincias Vascongadas" dalakoa aprobau eban 1971n. Plan horren barruan Gernikako Udalak Allendesalazarri erositako orubea eta inguruan desjaubetutako beste batzuk ikastetxe barria eregiteko emotea erabagi eban. Ikastetxe barria 1973ko apirilaren 3an zabaldu zan.

"Seber Altube" Ikastola. Aurreko proiektu berean, hezkuntza egoera hobetzeko, neskentzako ikastetxea egitea erabagi zan. Horretarako, udalak Manuel Omaetxebarriari "Santa Claraburu" orubea erosi eutsan 1974an. Edifizioa egin eta gero, erabili barik geratu zan Udalaren eskuetan. 1980an urian egozan ikastola biei ("La Cooperatiba de Gernika" eta "Seber Altube") itxi jaken, ikastola biak batzeko aurrebaldintza beteta, eta horri "Seber Altube Ikastola" izena ipini jakon.



C5

ZUBIALDE KALEA

Izenaren jatorria

Zubi inguruan dagoan esparrua edo eremua.

Muga geografikoak

Hegoaldetik Zubialde izeneko zubia eta erreka. Iparraldetik Urrengoerrota kalea.

Ezaugarri historikoak

Historian barrena kale horretako auzokideak ez dira errenteriarrak izan, gernikarrak baino. Azalpena erraza da: kanalizazinoa egin aurretik erreka Idurgo lantegiaren atzeko aldetik igaroten zan Urrengoerrota kaleraino. Handik, Errekazarra kalea jarraituta (adi toponimo honegaz), Errenteriako zubirantza egiten eban errekeak. Halanda ze, Zubialde kaleko etxebizitzen eremu osoa betirik izan da Gernika-Lumoko udalerrikoa.

Kale hau aitatukeran Errenteriako zubiak be aitatu behar doguz ia derrigorrean. Horreek ezinbestekoak ziran Errenteriako auzokideak Gernika-Lumogaz eta Kortezubigaz komunikau eitezan.

XIX. mendearen amaieran, Errenteria inguruan 4 zubi egozan: nagusiena Zubikoakoa zan eta horrek Errenteria Aldape kaleagaz lotzen eban San Juan kalea jarraituta; bigarrena, "Cigueña" zubia zan, Mertzedeko komentuaren ondoan egoana eta Santa Ana auzora emoten ebana, San Juan Ibarra zeharkatuz; hirugarrena, "Taberna-barriko" zubia zan, Elantxoberako kaminoan Golako ibaia kurutzatzeko egin zana; eta laugarrena, Arabietako zubia zan, Ajangizko udalerrian.

Antxina zubi horreek erraz hondatzen ziran uholdeak egoten ziranean, gehienak egurrezkoak ziralako. Ajangizko eta Gernikako portuen garapen ekonomikoari eta euren errenteriek lortutako etekinei esker, seguruagoak eta iraunkorragoak ziran harrizko zubiak eregi ziran. Baina zubi barri horreek egitea lar garestia zan eta, ondorioz, zubiok zeharkatzen ebezan oinezkoek eta animalia-garraoiek bidesaria ordaindu beharra eukien.

Behe Erdi Aroa ezkeroztik, ahalegin handiak egin ziran bideak konpontzeko eta behar zan besteko zabalera emoteko lau gurpiletako gurdiak igaro eitezan. Konponketa horreek handiagoak izan ziran errenterien itsasportu guneetan (Ajangizkoan), handik ateraten ziralako burdin mineralez betetako gurdiak inguruko burdinoletarantz. Ikuspuntu ekonomikotik, lehorreko garraio-sare on baten beharra egoan, itsasportuetara eta errenterietara erraz ailegetako edota bertatik salerosketarako gaiakaz abiatzeko.

Ez da ahaztu behar Errenteria auzoko zubia izan dala gure herriak historian sufritu dauen gertaera tamalgarrienaren protagonista. Gerra Zibilean faxistek zubia hartu eben, eta euren hegazkinakaz hiru ordu luzez Gernika-Lumo bonbardatu eta sarraski izugarria egin eben. Halanda guztiz be (subertez edo interes militarra eukalako matxinatuentzat), zubiak tinko eutsi eutsan erasoari. Handik urte batzuetara Gernika-Lumo eta Ajangizko eleizatearen arteko bat egitearen lekukoa izan zan. Zubi hori 80ko hamarkadan birkonpondu eben, segurtasuna areagotzeko eta garraio barrietara moldatzeko.

Edifizio aitagarriak

Zubialde zubia 80ko hamarkadan eregi zan errekearen hegal biak hobeto komuniketako.